

Ingurumen Buletina

- 1. Urriaren 6a: frackingaren aurkako borrokan mugarrria***
- 2. Elikadura, herritarron eskubidea***
- 3. Bilboko Portuak zentral nuklearretara doan uranioa jasotzen du***
- 4. Pasaiaiko Kanpo Portuaren Ingurumen Iraunkortasun Txostenari ELAk eginiko alegazioei Pasaiaiko Portu Agintaritzak emaniko erantzunaren balorazioa***
- 5. Dokumentala: "Euskal Herria: Ezkutuko zorra"***

1. Urriaren 6a: frackingaren aurkako borrokan mugarrria

Aurreko urriaren 6an Gasteizen manifestazio jendetsua izan da frackingaren aurka. Urtebete pasa da Patxi Lopezek Estatu Batuetara eginiko bidai batean ez ohiko gasa ateratzeko intentzioa ezagutarazi zuela. Eusko Jaurlaritzak Arabako lur azpian zegoen gas ez konbentzionala fracking bidez esplotatzeko asmoa azaldu zuen. Segituan mobilizatu zen talde bat eta frackingaren aurkako plataforma bat sortu zuten. Denborarekin eragile sozial, alderdi politiko eta sindikatuan plataformara gehitzen joan ginen, hauen artean baita ELA ere.

Urte honetan zehar plataformak lan handia egin du arazo honen sozializazioan, frackinga errealitate egiten bada izango ditugun arriskuen inguruan informatzen. Urriaren 6an Gasteizen gorenera iritsi den lan bikaina izan da. Antolatzaileen arabera frackingaren aurka mobilizatu ziren pertsonak 12.000 eta 15.000 artean izan ziren. Dudarik gabe Arabako hiriburuan, greba orokorrez gain, izan den manifestazio jendetsuenetakoa izan da.

Orain pilota politikarien teiltuan dago. Ikusiko dugu Gasteizko kaleetan frackingaren aurka entzun zen ohiuari kasu

egiten dioten edo kontuan izan gabe jarraitzen duten. Alderdi politiko bakoitzak hurrengo legealdian dituen intentzioak ezagutzeko lehendakari gai guztiekin jarri da kontaktuan plataforma, bilera hauen xedea hautagai bakoitzaren frackingaren aurkako konpromiso idatzi bat lortzea izan da. Hurrengo puntuak jasotzen ditu konpromiso idatziak:

- Eusko Jaurlaritzak gas ez konbentzionala haustura hidraulikoaren teknikaren bidez ikertzeko eta ustiatzeko egitasmoak finantzatzeari uztea, abian dauden eta hemendik aurrera eman ahalko diren hidrokarburoen ikerketa baimenetan teknika horri uko eginez.

- Erregai fosiletan oinarrituko ez den beste eredu energetiko berriztagarri batekiko konpromisoa zehazteko, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Hidrokarburoen Sozietatea (SHESA) desegitea eta erregai fosilak ikertu eta ustiatzea helburu izango duen beste enpresarik ez sortzea.

- Eusko Jaurlaritza frackingaren teknikaren bidez hidrokarburoen ikerketa edo ustiaketaren aurka tinko agertzea eta haren garapena ekiditeko behar diren egitasmo eta lege aldaketa guztiak burutzea.

Konpromiso hau onartu dutenak Equo, UpyD, EH Bildu, Ezker Anitza-IU eta Ezker Batua izan dira. PSOEek bilera eskaerari Patxi Lopezek agendan tarterik ez duela esanez erantzun du, eta PPK eta EAJk ez dute erantzun ere egin. Frackingaren aurkako borroka ez da bukatu. Hurrengo legealdian guztiek egiten dutenari adi egongo gara, sinatutakoa bete dezaten eta frackingaren aurka konprometitu ez direnak nahi dutena egin ez dezaten. Eta mobilizatzen ere jarraituko dugu, urriaren 6ko manifestazioa frackingaren amaiera izan dadin.

2. Elikadura, herritarron eskubidea. Urriaren 27an denok Bilbora

ELAn aspaldidanik gabiltza elikadura burujabetzaren alde lanean, oraingoan Elikadura Burujabetzaren aldeko Euskal Herriko herri eta gizarte mugimenduen aliantza soziala babesten ari gara. Aliantza hau erakunde sozialak, gobernuz kanpoko erakundeak, laborari eta baserritarrak, talde ekologistak, ekonomia sozialeko entitateak, banda etikoa bultzatzen duten ekimenak eta sindikatuak osatzen dugu. Eredu patriarkal eta neoliberalari aurre egin eta bestelako ikuspegi alternatiboak landu nahi ditugu, bere ondorioak modu negatiboan eragiten

baitigute arlo ekonomikoan, sozialean, politikoan eta baita elikaduran ere.

Aliantzak ondorengoa defendatzen du:

- Herri bakoitzak bere elikadura eta nekazaritza politika defendatzea produktuak kalitatezkoak, egokiak, eskuragarriak eta osasuntsuak izan daitezzen.
- Emakume nekazarien eskubideak aitortu eta errespetatzea, elikagaien ekoizpenean eta erabakitzeke ahalmenean.
- Lurraren eta ondasun naturalen, uraren, hazien eta inguruaren kudeaketa iraunkorra bermatzea.
- Baserritar eta arrantzaleen izaera zaindu eta duintzea, azken finean elikagai ekoizleak direlako, eta ez industriarako lehengai merkea sortzen duten langile hutsak.

Eta proposatzen du:

- Elikagaien prezioak modu etiko eta gardenean eraiki eta erakutsiak izan daitezela, ekoizpen kostuak ziurtatu eta kontsumitzaileen erosteko aukera bermatuz.
- Merkatua eta ekoizpena kontrolatzeko mekanismoak sortzea, ekoizpen eta kontsumo lokala sustatu eta esportazioei galga jarritz.
- Eskoletako jantokietan, jantoki publikoetan bertako eta sasoiko ekoizpen agroekologikoa eta gure arrantzaleen arraina besteak beste bultzatzea.

- Diru publikoa modu duin eta justuagoan banatzea, lehen sektorean lanpostuak sortu eta nekazaritza eta arrantza eredu iraunkorragoak bultzatuz.

- Gazteei lurra eskaintzea, lan egiteko, bizitzeko, elikagaiak sortzeko.

Arrazoi guzti hauengatik, egungo nekazal eta elikadura politikei aurre egiteko eta diru publikoa enpresa handien interes ekonomikoen onurarako erabiltzean gure desadostasuna adierazi nahi diegu. Gure alternatiba iraunkor, ekitatibo eta integratzailea defendatzeko **deialdia egiten dugu “Elikadura, herritarron eskubidea” lemapean datorren urriaren 27an manifestazioa egingo da Bilbon eguerdiko 12etan Jesusen Bihotzetik.**

Urriaren 27an Bilbon ikusiko gara!

3. Bilboko Portuak estatu espainiarreko zentral nuklearretara doan uranioa jasotzen du

Pasa den Irailaren 10ean Liverpooletik zetorren itsasontzi holandar batek Bilboko portuan, Espainiako zentral nuklearrak hornitzeko 12 tona uranio oxido aberastua deskargatu zituela jakin genuen prentsaren bidez. Lehen material hau Santanderretik bidaltzen zen zentral nuklearretara, baina

arrazoi ekonomikoengatik portuz aldatzea erabaki da. Bilboko Portuaren arabera material mota hau jasotzeko prestatuta daude. Langileak ordea ez datoz bat, prentsan irakurri baitzuten aurreko gauean esku artean izan zutena material erradiaktiboa zela.

Portuko Agintaritzak eta enpresek ez zituzten Segurtasun eta Osasun Komitea eta langileak informatu deskarga berri honen inguruan. Langile batzuk lanean ziharduten bitartean Portuko Agintaritzako norbait kontenedoreen inguruan neurketak egiten ikusi zuten baina ez zekiten zer neurtzen ari zen eta gaur egun ez dute neurketa horien emaitzen berririk izan. Ohikoa omen da portuko langileek eskuartean darabilten merkantzien berri ez izatea. Badirudi Portuko Agintaritzari ahaztu egiten zaiola produktu honen izaera. Langileentzat eta herritarrentzat izugarritzko arriskua duen produktu erradiaktibo bati buruz ari gara. Beste arazo nabarmen bat zera da, portutik estatuko zentral nuklearretaraino eramateko ibilbidean kamioiak hainbat herritatik pasa behar direla.

Aurreko buletinean esan genuen bezala, Garoña 2013an itxiko da berarekin zeukan arriskua behin betiko bukatuz. Bere

uranio beharra ere desagertu egingo da. Horra arte dena oso ongi dago, baina orain beste arrisku bat daukagu, oraindik gertuago gainera, uranioaren garraioa gure herrietatik pasako da horrek dakarren arrisku izugarriarekin. Garoña itxi ondoren, bere erregaia beharko duten 7 errektore nuklear geratuko dira oraindik espianiar estatuan, eta erregai guzti horren zati bat Bilboko portutik sartuko da.

Portuko eta garraio sektoreko langileentzat, eta errepide hauen inguruan bizi diren herritarrentzat suposatzen duen arrisku izugarria ikusirik, Bilboko Portua estatuko zentralentzat uranio aberastuaren sarrera ez bihurtzea exijitzen du ELAk. Eta berdina eskatzen dugu portu guztientzat. Inongo portuan ez litzateke uranio aberasturik deskargatu behar. Bilboko Portuan material erradiaktibo gehiago ez sartzea eta denontzat horrenbeste arrisku dituen energia nuklearra behin betiko alde batera uztea exijitzen dugu.

4. Pasaiko Kanpo Portuaren Ingurumen Iraunkortasun Txostenari ELAk eginiko alegazioei Pasaiko Portu Agintaritzak emaniko erantzunaren balorazioa

2012ko urtarrilean Pasaiko kanpo portuko Ingurumen Iraunkortasunerako

Txostenari ELAk eginiko alegazioei erantzun die Pasaiko Portuko Agintaritzak (PPA). Sindikatura bidaliriko erantzunean, proiektuaren iraunkortasuna alde batera utzita erantzuten da, prozesuaren legezkotasuna eta ingurumenaren babeserako gutxiengoak betetzen dituela azpimarratuz. PPAk alegazioei emaniko erantzuna nahiko eskasa da eta ez die gure alegazioetan planteatzen diren gai nagusiei erantzuten.

PPAk dio “ez duela lurraldean jarduteko guztizko debekuaren planteamendua partekatzen eta beraien aukera legea betez eta arduraz jokatzeko dela”. Hau da Jaizkibelgo zonaldearen babes osoa eskatzen duen ELAren alegazioari ematen dion erantzuna, babes osoa eskatzen dugu balio handiko babestutako eremu bat delako eta kanpo portua eraikitzeak sortuko duen eragina atzeraezina delako. Mota honetako azpiegitura bat zonalde babestuan eraikitzea ez da “planteamendu” kontu bat, iraunkortasun kontu bat baino, eta Portuko Agintaritzak berak dioen bezala, ardura kontu bat. PPAren legea betetze eta ardura kontzeptua nahiko distortsionatua dagoela dirudi. Agintaritzaren proposamena kostako erabilpen legitimoak modu iraunkorrean mantentzeko eta biodibertsitatea

kontserbatzeko planifikazio bateratu bat egitea da. ELAk ulertzen du portu bat kostako erabilpen legitimo bat dela, baina eraiki nahi den portuaren tamainarekin eta eragingo duen ingurumen inpaktuarekin legitimitate guztia galtzen du, babes eremuek dituzten erabilpen legitimoak nekazaritza eta abeltzaintza baitira, bere erabilera horretara dago mugatua, eta gainera murrizketekin. Kanpo portua itsaslabarretan eraikiko litzatekeen arren, ekosistemari eragingo lioke. Eta PPAk espazio honen planifikazioan parte hartzeko eskubidea duen arren, ezin ditu bere interesak gestio horren gainetik jarri, interes ekonomiko pribatuak baitira.

Kanpo portuan eraiki nahi duten plataforma energetikoari buruz ordea, PPAk dio planifikazio energetikoa ez dela bere kompetentzia, baina portuaren handitze beharra justifikatzerakoan hipotesi hau egiazkoa balitz bezala erabiltzen du. Segurtasun hori Pasaiaiko Zentral Termikoak ematen zion, baina dagoeneko bere itxiera errealitate bat da, beraz portuaren handitze beharra txikiagoa da orain. Honek trafikoaren igoeran ere eragin zuzena du, gaur egun mugitzen den trafikoaren zati handi bat zentralera doan ikatza baita, beraz etorkizun urbil batean trafikoak beste beherakada handi

bat sufrutuko du, krisi ekonomikoagatik sufrutzen duenaz gain. PPAk ikusten duena soilik *“eskariaren prebisiok betetzeko dataren atzerapena da, baina honek ez ditu baliorik gabe uzten BPGren igoerari loturik joango diren itsas trafikoaren hazkundearen joerak”*, baina errealitate bat da BPGren hazkundearen zain urte asko pasako direla eta urte hauetan portuak ez duela handitzeko beharrik izango, guztiz kontrakoa agian. Izatea, Pasaiaiko portuan trafikoaren joera beherazkoa izan zen BPGren azken hazkunde urteetan. PPAk *“inozotzat”* hartzen ditu etorkizuneko trafikoaren inguruan ditugun zalantzak. ELAren ustez aurreko oparoaldiak berriro bueltatuko direla pentsatzea da inozoa, bai trafikoak beraien itxaropenak beteko dituztela pentsatuz edo kostako den dirutza modu errazean lortuko dela pentsatuz. 751 milioi euro dira. Hauetatik zati handi bat badia barruko lurak salduz lortu nahi da eta gainontzekoa 150 milioi euroko kreditu bat eskatuta. Suposatzen dugu lurak salduta 600 milioi euro atera nahi dituela PPAk. Bizi dugun krisi ekonomiko eta kredituaren krisiarekin hau ez du inork sinesten. Gainera ADIF eta Gipuzkoako Diputazioaren esku uzten da portura iristeko tunelen eta logistika plataformaren eraikuntza. Gipuzkoako

Diputazioak jada esan duela proiektu honetan parte hartuko, beraz finantziazioa ez dago bermatuta.

Babes politikorik ere ez du. Bildu eta Aralar hasieratik daude proiektuaren aurka; Kongresuko EAJko diputatua den Arantza Tapiak esan du jada ez dela azpiegitura hau eraikitzeko momentua; eta PPko buruzagi batek bilera batean onartu berri digu inoiz ez zaiela ideia hona iruditu. PSOE bakarrik geratu da defendaezina dena defendatzen.

Baina guzti hau jakin arren, PPAk berean jarraitzen du. Onartzen duen alternatiba bakarra hirugarrena da, hau da, badiatik kanpo beste portu bat eraikitzea. Ustez erabaki hau ingurumen bideragarritasunaren menpe dago, baina alternatiba aukeratzearen erabakia hartuta dute, dokumentuz dokumentu egiten duten bakarra partxeak jartzea da, Ingurumen Ministeritzak alternatiba hau aukeratu dezan. Prozesuan zehar ez dute benetan beste alternatibarik baloratu. Beraien helburua azpiegitura hau eraikitzea da, portuaren eta badiaren beharrei erantzun beharrean.

Arrazoi hauengatik ELAk uste du proiektu hau behin betiko alde batera uzteko

ordua dela, proiektua ez delako bideragarria eta beharrezkoa ikuspuntu ekonomiko eta sozialetik, eta ingurumen aldetik guztiz baztertzea delako.

5. Gomendaturiko dokumentala: "Euskal Herria: Ezkutuko zorra"

Gaur egun, kontsumitzen ditugun materialen zati handi bat oso urrunetik ekartzen dira. Iparraldeko herrialdeetan kontsumitzen eta ekoizten ditugun produktu asko Hegoaldeko herrialdeetatik edo pobretutako herrialdeetatik datoz, non kutsatzea eta langileak baldintza prekarioetan kontratatzea errazago eta merkeago den. Hegoaldeko herrialdeetan gure jarduera ekonomikoengatik eta gure kontsumoagatik sortzen ditugun ingurumen inpaktu eta eragin sozialak zor ekologiko bat suposatzen dute. Ekologistak Martxanek egin duen dokumental honetan Bolibiako eztainu mehatzeek Mendebaldeko Ozeano Indikoan atunaren gehiegizko arrantzak, eta Indonesian olio a ateratzeko palmondo afrikarraren landaketek eragiten dituzten eraginak azaltzen dira. Egin klik [hemen](#) dokumentala ikusteko.